



## **PRENTSA OHARRA**

Hitzarmen berriaren bitartez lankidetzarako oinarriak ezarri dituzte

# **BILBAODENDAKEK ETA KUTXABANKEK XEHEKAKO MERKATARITZAREN ERALDAKETA DIGITALA BULTZATUKO DUTE**

- Tokian tokiko merkataritza negozio digitalera moldatzen jarraituko dute, negozioen irudia eta bezeroenganako harremana hobetzeko, bai eta merkataritzako inteligentzia kudeatzeko ere
- bilbaoDendak elkarteak bultzatzen dituen sustapen-jarduerei laguntza emango die Bankuak, 'Opari' txartelen zozketak edota Bilboko Komertziorako Sariei esaterako, eta finantza-irtenbide katalogo zabala jarriko du euren eskura
- laz TPV gailuen fakturazioa %11 hazi zen Bilboko merkataritza guneetan

**2020ko urtarrilaren 16an.** Finantza erakundearen eta Bilboren sustapen komertzialerako eta turistikorako plataformaren arteko hitzarmena **Rafael Gardeazabal** Bilbao Dendak elkarteko presidentek, eta **Xabier Solaetxek** Kutxabanken Xehekako Sarearen Bizkairako zuzendariak sinatu dute. Alde biek adostu dute hiriko komertzioaren lehiakortasuna bultzatzeko beharrezkoak diren tresnak bideratzea, lehiakortasun digitalean batik bat, eta salmentak sustatzeko eta dendarien eguneroko kudeaketa errazteko beharrezkoak diren finantza-zerbitzu eta produktuak jartzea.

Bilbao Dendakek eta Kutxabankek zehaztutakoaren arabera, digitalizazioa da tokian tokiko saltokiek hobetzeko duten esparruetako bat. Eskala digital hori lortzeko bidean, #BilbaoDendakFreeWifi doako sarea sortu dute bazkide diren saltokiek. Sare hau erabat doakoa eta segurua da bezeroentzat, eta beste urrats bat da negozioen irudia eta bezeroenganako harremana hobetzeko. #BilbaoDendakFreeWifi merkataritzarako inteligentziaren tresna bat ere bada, saltokiek beren bezeroak hobeto ezagutu eta horren honen araberako erabakiak har ditzaten.



bilbaoDendak plataformak komertzioaren 12 gune-elkarte, Erriberako Merkatua, Zubiarte eta El Corte Inglés integratzen ditu eta plataformaren presidentearen iritziz, “akordio honekin bazkide diren saltokien eskuetan produktu eta zerbitzu finantzarioen eskaintza osoa jartzen dugu, beren eskuetan tresna berritzaileak ipintzeko helburuarekin, enpresen lehiakortasuna eta bideragarritasuna errazteko”.

Xabier Solaetxek azpimarratu duenez, “indarrak batzeak elkar-ezagutzarako tresna erabakigarriak dira erronka digitalaz ari garenean. Esparru honetan, Kutxabankek dagoeneko bide luzea du egina. Beraz, Euskadin erreferentziazko erakundea izanik, merkataritza digitalean dugun ezagutza Bilbao Dendak elkartearen eskura jartzen dugu”.

### **Fakturazio handiagoa**

Hitzarmenaren gakoetako bat bilbaoDendak integratzen duten saltokien salmentak erraztea da, horretarako, Kutxabankek euren eskuetan jarriko du Komertzio Kreditua osatzen duten finantza-produktuen eskaintza zabala.

Kutxabank Kredit, Banku Taldearen kontsumorako maileguen atalak bere erosketak **Komertzio Kredituaren** bitartez finantzatzeko aukera eskaintzan dio bilbaoDendak elkarteko saltokien azken bezeroari. Kreditu mota horren ezaugarri nagusia da tramiterik eta paperik ez duela eskatzen, eta saltokian bertan egiten dela. 2019. urtean, Kutxabankek **5 milioi** euroko erosketak finantzatu zituen Bilbon, aurreko urtean baino **%5,20 gehiago**.

bilbaoDendak elkartearen kide diren negozioen lehiakortasuna hobetzeko helburuz, Kutxabankek **negozio hipoteka mailegua** jarriko du horien eskura, negozioen kokaleku diren higiezinak erosteko, edo **negozio mailegua** zirkulatzaile beharriaz erantzuteko edo ekipamendu profesionalaren erosketak finantzatzeko, altzarietatik hasita makineriaraino, garraiorako osagarriekin batera.

Gainera, bilbaoDendak elkarteari lotutako negozioek negozio horien eguneroko kudeaketa errazteko bereziki diseinatutako produktuak ere izango dituzte, hala nola, **Negozio Kontua**; ordainketarako pasarelak, tartean Bizum bidez ordaindutako erosketak, edo **TPV** modernoak. Hain zuzen ere, deigarria da iaz Kutxabanken **TPV-en bitartez** Bilbon zenbatutako **fakturazioa %11 hazi** zela.

Hitzarmena negozioentzat espreski sortutako ibilgailuen renting eskaintzaren eta arrisku-anitzeko aseguruarekin osatzen da, saltoki komertzialetara bereziki bideratua. Iaz sinatu ziren **aseguru-polizen kopurua %4** hazi zen.



Finantza-abantailen sorta zabalarekin batera, luzatu daitekeen urtebeteko indarraldia izango duen hitzarmenak, enpresa sustapen eta animazio ekimenei laguntza emateko lerroak ditu, esate baterako, **'Opari' txartelen zozketak**, urtero egiten den Bilboko Komertziorako Sarien banaketa ekitaldia, gazteentzako eta adinekoentzako **sustapen-jarduerak** edo merkataritzarekin zerikusia duten **dibulgazio jardunaldiak**.